



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

116. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Azaroa



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenarako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Foru Aldundiak ETEak ekimenean izandako partaidetzari esker, 29,4 milioi euro mailegutan jasotzeko aukera izan dute Gipuzkoako enpresek**

2015aren amaieran, ETEak ekimena abian jartzea onartu zuen Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak autonomia-erkidegoekin elkarlanean, eta Euskadiren kasuan hiru foru-aldundiek ere parte hartu zuten. Ekimenaren helburua enpresa txiki eta ertainen finantzaketa hobetzea izan da eta, horretarako, Europako eskualde bakoitzari bideratutako EGEF funtsen bidez, arriskuen estaldura hobetu da.

Ekimena garatzeko, bederatzi finantza-entitatek osatutako talde bat ere aritu da lanean eta entitate horien bidez formalizatu dira mailegu-eragiketak enpresekin. Maileguak arrisku handia duten enpresa txikiei eman zaizkie; hau da, seguru asko bankuetako ohiko finantzaketarik lortuko ez zuten enpresei. Mailegu gehienak txikiak izan dira (% 83, 100.000 eurotik beherakoak Estatu osoko datuen arabera).

ETEak ekimenean, Euskadirentzako ekarpena, Eusko Jaurlaritzatik, foru-aldundietatik eta Estatuako Administrazio Orokorretik etorritakoa, 11,2 milioi eurokoa izan da eta Europako Inbertsio Bankuak Euskadirentzako (7,42) aplikatutako eragin biderkatzailearen arabera, 82,8 milioi euro inguru mugitu dira euskal enpresei maileguak emateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 989.279 euro jarri zituen PYME ekimenerako EGEF Funtsetatik etorritako zenbatekotik. Horri Eusko Jaurlaritzak eta Estatuako Administrazio Orokorrek Gipuzkoarentzat bideratutako ekarpena gehituz gero, guztira, 3,9 milioi eurokoa izan da zenbatekoa. Zenbateko horri EIBk Euskadirentzako aplikatutako eragin biderkatzailea aplikatuta, 29,4 milioi euro eman dira mailegutan lurraldeko enpresa txiki eta ertainentzat.

Gainerako autonomia-erkidegoei begiratuta, palanka-efekturik handiena Euskadik izan du inbertitutako funtsei dagokienez (7,42) eta atzetik ditu Katalunia (6,78), Murtzia (5,43) eta Galizia (4,78), Estatuan, batez besteko palanka-efektua 3,57koa izan dela aintzat hartuta. Hasieran aurrez ikusitako funtsa guztiak esleitu dira.

Informazio gehiago:

http://www.eif.org/what_we_do/guarantees/sme_initiative/smei_spain/index.htm

http://www.dgfc.sepg.minhap.gob.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/c/oacag/Documents/folleto_pymes_web_acc1.pdf



> Euskal Eurohiriak Plan Estrategiko berria aurkeztu du eta Iparraldeko administrazio-egitura berriaren ondorioei buruzko hausnarketaldia abiarazi du

Donostia-Baiona Euskal Eurohiria garatzeko Mugaz Gaindiko Agentziak azaroaren amaieran egin zuen batzar orokorra. Markel Olano diputatu nagusia buru izan zuen batzarrean parte hartu zuten Mugaz Gaindiko Agentziako bi gerenteek: Imanol Lasa Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak eta Claude Olive Euskal Kosta-Adour barrutiaren (ACBA) presidentea. Han izan ziren Bidasoa-Txingudi Partzuergoko, Euskal Iparraldeko Elkargoko (ASPB), Donostiako Udaleko eta Oarsoaldea garapen-agentziako zenbait ordezkari ere.

Bi ardatz izan ditu batzarrak: batetik, proiektuei dagokienez, Eurohiriaren 2015-2020rako Plan Estrategiko Operatiboa aurkeztu eta baliozkotu dute eta, bestetik, Iparraldeko egitura administratibo berria.

Eurohiriaren 2015-2020rako Plan Estrategiko Operatiboak sistemetan txertatutako 27 ekimen jasotzen ditu. Horietatik 7k dute lehentasuna eta oinarritzko 4 zeharkako jardura dituzte denek euskarri eta osatu egiten dituzte operatibotasunaren eta berehalakotasunaren ikuspegitik planteatutako jarduerak. Hala, 31 proiektu dira guztira garatu beharrekoak. Hona hemen lehentasunezko zazpi ekimenak: Kultura Mahaia, hirueletasuna, txartel bakarra; turismoa sustatzea; berrikuntzarako mugaz gaindiko ekosistema; Ocean Experience eta ingurumen batzorde teknikoa. Oinarritzko zeharkako jardura gisa Eurohiriaren App eta webgunea, seinaleak, koordinaziorako mahaia eta Talaia bidearen sustapena eta horri lotutako jarduerak ezarri dira.

Eurohiriaren Batzar Orokorrak landutako bigarren gaia Iparraldeko egitura administratibo berria izan da. Oraingo 10 Agglomération direlakoen ordezkari (horietatik 2 Eurohiriaren parte: ACBA eta ASPB) Agglomération Pays Basque izeneko entitate bakarra izango da aurrerantzean. Entitate berriak 300.000 herritar eta eskumen garrantzitsuak izango ditu. Zuzenean eragingo dio horrek mugaz gaindiko lankidetzari, antolara, finantzaketan eta eskumenen banaketan aldaketak ekarriko baitizkie mugaz bestaldeko Eurohiriaren kideei. Egitura administratibo berria eta Eurohiriari ekarriko dizkion ondorioak aztertzeko eta aintzat hartzeko foro bat abian jartzea planteatu da eta foroaren helburua partekatutako hausnarketaldia eta Iparraldeko mankomunitate berrirako egokitzapena zuzentzea eta elkarrekin lan egiteko aukera berriak aztertzea izango da.

Informazio gehiago:

<http://www.eurohiria.org/>



> Foru Aldundiak bisita egin dio Danimarkako Gobernuari Gobernu Ona delakoari lotutako estrategiak partekatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak Danimarkako Finantza Ministerioaren mendeko Digitalizazio Agentziako zenbait arduradun instituzionalekin bildu dira. Agentzia hori arduratu da azken urte hauetan Danimarka Gobernu Ona delakoaren politiketan munduko erreferentzia bihurtu duen modernizazio-estrategia garatzeaz.

Digitalizazio Agentzia daniarreko nazioarteko zuzendari Yih-Jeou Wang-ek egin die harrera Gipuzkoako ordezkariari. Gipuzkoatik, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatu Imanol Lasa, Herritarren partaidetzarako zuzendari Joseba Muxika eta Kanpo Harremanetako zuzendari Iker Goiria izan dira Danimarkan eta alor batzuetan eta besteetan egiten duten lana azaldu dute: ordezkari publikoen jokabide etikoa, administrazio elektronikoa eta publikoa den horretan gizarte zibila ahalduntzea. Herritarren Borger.dk atariko zuzendari Mathilde Illum-ekin ere bildu dira. Webgune horretan zentralizatuta dauzkate zerbitzu eta izapide publikoak, eta 2014an 28 milioi bisita jaso zituen. Horrez gain, Louise Friis Sektore Publikoko zuzendaritza-arduradunarekin eta Susanne Duus Ongizate Digitaleko programaren arduradunarekin ere bildu dira. Osasungintzan eta hezkuntza teknologia berriak ezartzera dago programa bideratuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak arlo hauetan egiten ari diren proiektu nagusien berri eman diete: Erakundearen Zuzentasun Sistema; Open Data-ko Foru Arau berria osatzeko proiektua; administrazio elektronikoa ezartzea, abian jarri berria den lizitazio elektronikorako proiektu pilotua barne; Gipuzkoako Kontratazio Zentrala, Kudeaketa Plan Estrategikoa edo ohiko izapide administratibo batzuk sinplifikatzea, besteak beste.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.eus/es/-/aldundiak-gobernu-onari-lotutako-estrategiak-partekatu-ditu-danimarkar-gobernuko-digitalizazio-agentziarekin>



KOHESIO-POLITIKA

> Europako Batzordeak Espainiako eta Portugaleko Egiturazko eta Inbertsiorako Funtsak ez blokeatzea erabaki du

Europako Batzordeak 2015eko defizit helburua ez lortzeagatik Espainiako eta Portugaleko Egiturazko eta Inbertsiorako Funtsak blokeatzeko proposamena ez onartzea erabaki du. Erabaki hau, Europako Legebiltzarraren proposamena ezagututa eta estatu bakoitzak defizitarekin amaitzeko proposatutako neurriak aztertu eta gero hartu den erabaki hau, estatu bakoitzak Europako Batzordeak adierazitako neurriak hartu dituztela jakinda hartu da.

Dena den, Europako Batzordeak 2017rako behin-behineko aurrekontuarekin adostutako zerga-helburuak ez dituela beteko adierazi dio Espainiari.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/news/en/news-room/20161107IPR50344/meps-say-no-to-suspending-eu-structural-funds-for-spain-and-portugal>

<http://uk.reuters.com/article/uk-eu-deficits-spain-portugal-idUKKBN13B1MW>



> **PLK-k mugaz gaindiko elkarlana " Europa eraikitzeo eta pertsonak elkarrengana gerturatzeko funtsezko elementua" dela adierazi du**

Pirinioetako Lan Komunitateak, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Europako programa kudeatzeko agintari denak, 34. osoko bilkura egin zuen Bordelen azaroaren 10ean. PLK osatzen duten zazpi lurraldeetako ordezkariak Presidenteen Adierazpen Komuna sinatu zuten. Dokumentu horren bidez berresten da urtero lurraldeek Pirinioetako lurraldeetako zailtasunak gainditzeko eta arriskuak murrizteko, aberastasun natural eta kulturala zaintzeko eta mugaz gaindiko espazioan potentzial ekonomikoa garatzeko hartutako konpromisoa.

Era berean, PLKren osoko bilkuran Pirinioetako Lan Komunitatearen estrategiari buruzko hausnarketa ere egin zuten. Estrategia hori erakundearen datozen urteetarako bide-orri bihurtzea nahi dute.

Informazio gehiago:

<https://ctp.org>

https://ctp.org/userfiles/Declaraci%C3%B3n%20com%C3%BAn%20VF_ES.doc



> Zabalik da 2014 – 202ko POCTEFaren 2016ko bigarren deialdia

V-A Espainia-Frantzia-Andorra INTERREG Programako proiektuen bigarren deialdia argitaratu dute (POCTEFA 2014-2020). Deialdia Programako lehentasunezko bost ardatzei irekita dago eta 71,2 milioi euroko aurrekontua du. Programako bost ardatzetako bederlatzi Inbertsio Lehentasunetako batekoak izan beharko dute proiektuek:

1. Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea.
2. Klima-aldaketara egokitzeko eta arriskuak prebenitu eta kudeatzeko sustapen-lana egitea.
3. Tokiko baliabideen erabilera iraunkorra, babesa eta balorizazioa bultzatzea.
4. Ondasun eta pertsonen mugigarritasuna erraztea.
5. Lurraldeetan gizarteratzea eta gaitasunak sendotzea.

Deialdiak bi fase izango ditu. Lehen fasean, hautagaitza soildua aurkeztu beharko da eta horretarako azken eguna abenduaren 13koa da. Bigarren fasera igaroko diren proiektuen zerrenda 2017ko apirilean argitaratuko dute. Aukeratu eta bigarren fasera igaroko diren proiektuek hautagaitza osoa aurkeztu beharko dute.

POCTEFA 2014-2020 mugaz haraindiko lankidetzarako Europako programa da. Espainia, Frantzia eta Andorra arteko mugaz haraindiko lurraldearen garapen iraunkorra bultzatzeko sortu zen. Programak, beste batzuekin batera, Pirinioetako bi aldeetako eragileek diseinatutako eta kudeatutako mugaz haraindiko lankidetzaproiektuak finantzatzen ditu. Horretarako, Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsaren bidez (EGEF) Europar Batasunak Programari esleitutako 189 milioi euroko kontu-saila du.

Proiektuen hautagaitzak sustatzaile publiko eta/pribatuen lankidetzak batek aurkeztu beharko ditu Inbertsio Lehentasun bakoitzerako Programak zehazten duen moduan. Lankidetzak hori estatu ezberdinetako (Espainia-Frantzia-Andorra) bi erakundek edo mugaz gaindiko izaera duen erakunde juridiko batek osatu beharko dute gutxienez. EGEFen esku-hartze tasa onuradun bakoitzak eskura dezakeen gutzizko kostuaren % 65ekoa izango da.

Informazio gehiago:

<https://www.poctefa.eu/convocatorias/2a-convocatoria/informacion-sobre-la-convocatoria/>



> LHn mugaz gaindiko lankidetzarako lehen jardunaldiak egin dituzte

Ikaslan Gipuzkoak, Tknikak eta Chambre de Métiers et de l'Artisanat delakoak sustatuta, mugaz gaindiko elkarlanerako lehen jardunaldiak egin zituzten lanbide heziketan azaroaren 23an, 24an eta 25ean.

Irunen (Ficoba) egin zituzten jardunaldien helburua prestakuntza-zentroyen, enpresen, elkarte profesionalen, enplegu-bulegoen eta bazkide instituzionalen arteko sinergiak indartzea izan da eta Tknikara (Erreterria) eta Akitaniara ere egin dituzte bisitak. Lanerako dinamikak sustatzea, lankidetzara-proiektuak bultzatzea, egokitutako gaitasunak garatzea eta prestakuntzari eta enpleguari mesede egingo dioten koordinazioa mugaz gaindiko ikuspegitik sortzea ere izan da xedea.

Nouvelle-Aquitaine eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintariak izan ziren jardunaldietan. Lehen jardunaldian sektorekako gaitasunetarako aliantzak, euskal LH nazioartekotzeko estrategia eta Erasmus+ landu zituzten. Ikaskuntzaren kudeaketari, prestakuntza dualari, laneko zentroyetan praktikak egiteari eta nazioarteko proiektuei buruz eztabaidak ere egin zituzten.

Jardunaldien harira, zenbait tailerretan izan ziren, bisitan; adibidez, Tknikan (LHri aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako EAEko Zentroa), eta izan zuten Akitaniako lanbide heziketako zentro bat eta industria- edo zerbitzu-sektorearekin lotutako enpresa bat ezagutzeko aukera ere.

Informazio gehiago:

<http://www.ikaslangipuzkoa.eus/>

<https://www.tknika.eus/>

<http://www.artisanat.fr/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Euskadi eta Eusko Jaurlaritza nabarmendu dituzte LHarekin lotuta Europako Batzordeak argitaratutako txostenean

Europako Batzordeak, Enplegua, Gizarte Gaiak eta Gizarteratzea Zuzendaritza Nagusiaren bidez, "Skills Panorama" web-atarian herrialdeetan eskainitako lanbideen eta prestakuntzaren arteko desdortzei buruzko txostena argitaratu du eta, zehazki, Espainiako kasua oinarritzat hartuta.

Txosten horretan, Batzordeak lanbide-heziketarekin lotuta Euskadiko ekintzak, ekimenak eta legeria nabarmendu ditu. Txostenak nabarmendu duenez, eskualde mailako gobernu batzuk bereziki aktiboak dira industriarekin lotutako espezialitateetan LHko teknikarien kopurua eta kalitatea areagotzeko garaian. Batzordearen ustez, horren adibide ona da Euskadi, Lanbide Heziketaren Euskal Legea ere atera baitute.

Lanbide Heziketaren Euskal Legearen helburua prestakuntza-eskaintza tokiko enpresen (batez ere, industria-enpresak) egungo beharretara hobeto egokitzea eta Estatu mailako legeriak ezarritako oinarriko irizpideak betetzea da. Lege berriak lehentasuna duten arlo batzuk identifikatu ditu eta honako hauek dira batzuk: LH-dualeko ereduen garapen integrala, enpresek prestakuntzaren diseinuan eta edukian parte hartzea, enpresa-gaitasuna txertatzea eta curriculum nazioartekotzea.

Informazio gehiago:

http://skillspanorama.cedefop.europa.eu/en/analytical_highlights/spain-mismatch-priority-occupations



> **Batzordeak 400 milioiko funtsa iragarri du startupak bultzatzeko**

Batasuneko ekimen batzuek enplegua sortzen eta hazten lagunduko dute: Inbertsio Estrategietarako, Merkatu Bakarrerako Estrategiarako, merkatu digital bakarrerako eta Kapital Merkatuen Batasunerako Europako Funtsa... Gainera, Egitura Funtsak eta Europako Inbertsio Funtsak ere biltzen ditu berrikuntzarako eta ETE-*ei* laguntza emateko. Dena den, lehen bizpahiru urteko fase kritikoa gainditzea lortzen duten Europako enpresak gutxi dira, eta are gutxiago gero enpresa handi bihurtzen direnak.

Testuinguru horren baitan, Europako Batzordeak ekimen berri bat iragarri du enpresek lehen urteen ondoren ekiteko duten gaitasun-gabeziari konponbidea eman eta jarduera etetea edo beren jarduera garatu ahal izateko hirugarren herrialde bat bilatzea ekiditeko. Europako Batzordeak aurkeztutako ekimenak Inbertsioen Europako Bankuarekin batera akordio-funtsa sortzea ekarriko du. 400 milioi euro arteko ekarpena egingo du eta, horren bidez, funts horiek gutxienez hiru aldiz baliabide pribatu gehiago bilduko dutela espero dute. Ondorioz, arrisku-kapitalaren finantzaketan, gutxienez 1.600 milioi euroko zenbatekoa sortuko litzateke.

Kudeaketa hori Inbertsio Estrategikoen Europako Funtsarekin (IEEE), enpresa txiki eta ertainentzako Europako programarekin (COSME) eta Horizon 2020 programarekin osatuko da.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-16-3882_es.htm

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52016DC0733&from=EN>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Europako Batzordearen web-ataria berritu dute

Online eskuragarri dauden web-atarri ugariak eta ezberdinak bateratzeko asmoz, Europako Batzordeak web-ataria berritzeko lanari ekin dio. Prozesuaren helburua bateratutako webgune berriak gaur egun modu independentean eta nahasian funtzionatzen duten webgune ugariak ordezkatzea litzateke.

Webgune berria sortzea eta garatzea abian dagoen prozesua da. Azken hilabeteotan horretan ari dira, baina oraindik ez dute amaitu. Edonola ere, eraikitzen ari diren web-atarri berriak elkarri lotuta dauden bi zati ditu: Batzordearen lehentasun politikoak lotzen dituen atal politikoa, eta erabiltzailearen beharren inguruan egituratutako informazio atal gisa eraturako beste zati bat.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/index_es.htm

> Interes orokorreko zerbitzuak 2014-2020 finantzaketa-aldian (Europako Parlamentua)

Interes orokorreko zerbitzuak (SIG) eztabaida politikoaren ardatzean daude. Agintari publikoek merkatu-ekonomian betetzen duten rola nagusia eragina; alde batetik, merkatuaren funtzionamendua ona dela eta protagonista guztiek jokoaren arauak errespetatzen dituztela zaintzea, eta bestetik, interes orokorra bermatzea: herritarren oinarritzko beharrak asebetetzea eta, merkatuak hala lortzen ez duenean, ondare publikoak mantentzea.

Ikerketak 2014-2020 programazio-aldian SIGek bete dezaketen rola eta Europako Egitura Inbertsio Funtsek (ESIF) hori garatzen nola lagun dezaketen aztertzen du.

Informazio gehiago:

https://bookshop.europa.eu/es/services-of-general-interest-in-the-funding-period-2014-2020-pbQA0116072/downloads/QA-01-16-072-EN-2/QA0116072EN2_002.pdf;pgid=GSPefJMEtXBSR0dT6jbGakZD00007oToqOwB;sid=j2-JMFLx1hOJMArMDLkXlzDUwgyXQh-SkR0=?FileName=QA0116072EN2_002.pdf&SKU=QA0116072EN2_PDF&CatalogueNumber=QA-01-16-072-EN-2



> 2014-2020 Europako lurralde-lankidetzako programen berrikusketa (Europako Parlamentua)

Azterketa horrek 2014-2020 programazio-aldirako aurrez ikusitako Europako lurralde-lankidetzaren azterketa sintetikoa eskaintzen du. Kide diren estatuek eta kudeaketako agintariek hartutako erabaki estrategikoei zein Batasuneko gainerako tresna eta programekiko egon daitezkeen sinergieiei buruzko informazioa eskaintzen du azterketak. Horrez gain, soiltzea aplikatzeko aurrez ikusitako tresnei (AECT edo makroeskualdeko estrategiak) eta neurriei buruzko informazioa jasotzen du.

Informazio gehiago:

[http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/STUD/2016/585878/IPOL_STU\(2016\)585878_EN.pdf](http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/STUD/2016/585878/IPOL_STU(2016)585878_EN.pdf)



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **POCTEFA 2016ko 2. deialdia. V-A Espainia-Frantzia-Andorra INTERREG Programa (POCTEFA 2014-2020) (+info)**
- **MEDIA 2016 azpiprograma – Eduki-paketeen garapenera laguntzeko (Slate Funding) (+info)**
- **MEDIA 2016 azpiprograma – Europako obren sustapena on line (+info)**
- **HORIZON2020. Hiri inteligenteak eta iraunkorrak. SCC-02-2016-2017(IA). (+info)**
- **HORIZON 2020 ETE-entzat berrikuntzarako laguntza hobea. INNOSUP-01-2016-2017(IA). (+info)**
- **HORIZON 2020 Industria 2020 Ekonomia Zirkularrean. CIRC-02-2016-2017(IA), CIRC-01-2016-2017(IA). (+info)**